

## **AEK ere beharrezko du euskarak**

*Euskaldunon Egunkaria*, 1994-03-02: 2.

Erakuspen batekin hasi nahi dut argudioa: Euskal Herria inoiz elebakarra izan bada, euskalduna izan da. Honetxegatik da Euskal Herria. Hala zen oraindik Erromatarrek orain bi mila urte Mediterraniotik gora gu ikuskatzera heldu zitzaizkigunean. Eta Penintsulako hizkuntza guztiak irentsi zituen, euskara ezik. Mila urte gero agertzen da lehen idazkietan gure mintzo zaharrari lotuta sor berriaren gaztelera. Katalana eta gailegoaren jatorri eta adina berekoa da, baina jeinua du harroin eta gudalari, inperialista. Bitartean, bazterretatik eta administralgoaren bihotzetik gaztelera hasia da XVI. gizaldian, oso gutxi bada ere, hegoaldeko erriberatik *elebiduna bilakatzen*. Hala, Amerikaganako sortu zuen lilurak, gerrarako zuen sen gaizto faltsuak, eta kulparik ez duten etorkinak direla medio Goardia Zibilaz bezala hasten da eskoletan bere hitza inposatzen, Oñatiko unibertsitatea akabatzen, eta azkenaldian Francok egin duen berrogei urteko garbiketana... Gure herriak ahal duenetatik eusten dio usten diotenarekin. Zailtasun handiz eta borroka paketsuan Ikastolaren inbentua jartzen du lanean. Baina Gaztelako nazionalistak eta Euskal Herriko beste batzuk akabatuko dute orain arte eutsi eta berregin dugun guztia. AEK herritarra, HABE eta Lehendakaritzaren Idazkaritza ofizialen aurrean, Madrilek eta Gasteizko Jaurlaritzan dauden infiltratuek herri hau azkenean *erdarazko elebakarra* izatera behartuko dute.